

Oinarrizko Datuen Dokumentua

Helburua

Dokumentu honek inbertsio-produktu honi buruz jakin behar duzun oinarrizko informazioa emango dizu. Ez da material komertziala. Produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta izan ditzakeen irabaziak eta galerak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin alderatzen laguntzeko legez eskatutako informazioa da.

Produktua

Produktuaren izena: Kutxabank errenta-asegurua

Adineko aseguratu batentzat: 70

Entitate Aseguratzaila: Kutxabank Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U., IFK: A48272363 eta egoitza soziala: Plaza Euskadi, 5 - Planta 28 - 48009 Bilbao, Bizkaia. Informazio gehiago lortzeko, deitu 94 401 83 30 telefonora.

Agintaritza eskuduna: Produktu hau Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (APFZN) ikuskatzen du.

Produktzio-data edo azken berrikuspenaren data: 01/10/2020

Zer da produktu hau?

Mota

Produktu hau Biziarteko Errentako Bizi Aseguru Indibiduala da, kapital aseguratuarekin heriotza gertatuz gero, eta prima bakarrarekin kontratatzeko modukoa.

Helburuak

Produktu honen helburua Aseguratuari biziarteko errenta periodikoa bermatzea da eta,aldi berean, Onuradunei Aseguratuaren heriotzagatik prestazio bat bermatzea. Produktuarekin espero den errentagarritasuna eta jaso beharreko errenta gordinaren zenbatekoa kontratazioa egiten den unean ezarriko dira eta aldaketarik gabe iraungo dute finantza-merkatuen gorabeherak kontuan izan gabe.

Produktuaren xede den txikizkako inbertitzaila

Produktua aukera ona da, likidezia izanik, beste diru-sarrera batzuk osatuko dituen zenbateko bermatu bat aldiro-aldiro jasotzea bermatu nahi duten pertsonentzat. Produktu hau inbertsioa bizitza osorako mantentzeko prest dauden inbertitzaileentzako pentsatuta dago. Horregatik, ez zaie gomendatzen kapitala bat-batean eskuratu nahi duten inbertitzaileei.

Aseguru-prestazioak eta kostuak

Produktu honek bi prestazio-mota bermatzen ditu:

- Zenbateko finkoko errenta periodikoen ordainketa pertsona Aseguratua bizi den bitartean. Kasu horretan, hiltzean iraungiko litzateke errenta.
- Aseguratua hiltzean, egindako ekarpenaren berdina izango den heriotza-kapitalaren ordainketa egingo zaie haren Onuradunei, hau da, prima bakarraren ordainketa.

Produktu honek erabateko erreskate aurreratuen aukera eskaintzen dio Aseguratuari kontratuaren indarraldiko edozein unetan. Ez dago erreskate partzialaren aukerarik. Erreskatearen balioa erreskatea eskatzen den egunean lortutako honako hiru zenbateko hauetan txikiena izango da:

- Hornidura matematikoa ken desinbertsio-kostua, desinbertsio-kostua positiboa bada, edo, bestela, hornidura matematiko osoa.
- Dagozkion inbertsioak egiteko balioa.
- Heriotza-kapitala.

Desinbertsio-kostua bi hauen arteko diferentzia izango da: batetik, etorkizuneko prestazio aseguratuen balioa erreskatea eskatzen den egunean, hasierako erreferentzia-tasaren arabera eguneratze finantzario-aktuariala kontuan izanik, eta, bestetik, balio bera, amaierako erreferentzia-tasaren arabera eguneratze finantzario-aktuariala kontuan izanik (EURIBOR 30 urtera + % 0,60). Egungo balioa kalkulatzeko, aipatutako tasak erabiliko dira kontratazio-unean muga-eguntzat ezartzen den egunera bitartean eta, ordutik aurrera, kontratuan xede horretarako ezarritako interes-tasa erabiliko da eguneratze-tasa gisa.

Errenta-prestazioak eta heriotza-kapitala bermatuta daude aseguru-poliza Aseguratua hil arte mantentzen bada. Hala ere, **Aseguratuak erreskate aurreratuen eskubidea erabiltzen bada, inbertitutakoa baino zenbateko txikiagoa jaso lezake erreskate-balioa finantza-merkatuen portaerari lotuta dagoelako.**

Produktu honek ez du muga-egunik, biziarteko izaera du. Dokumentu honetako kalkuletarako, Aseguratuaren bizi-itxaropena ken zure adina, hau da, ken 21 urte hartzen da, batez bete, gomendatutako mantentze-aldizat.

70 urteko Aseguratu baten eta 10.000 €ko inbertsio edo prima bakarraren kasuan, heriotza-estalduraren prima 0 €koa izango da eta inbertsioaren errentagarritasunaren gaineko inpaktua % 0koa izango da gomendatutako aldiaren amaieran.

Ekoi-leak alde bakarretik deusezta dezake kontratua Aseguru Eskabidea betetzeko orduan arriskuaren kalkuluan eragiten duen errezeloren bat edo zehaztasunik eza sortzen bada.

Zer arrisku ditut eta zer lor nezake trukean?

Arrisku Adierazle Laburtua (AAL)



Arrisku-adierazle laburtuak esan nahi du produktuarekin jarraituko duzula hiltzen zaren arte. Benetako arriskua asko alda daiteke irteera aurreratua eginez gero eta, horren ondorioz, baliteke diru gutxiago berreskuratzea.

- Arrisku-adierazle laburtua produktu honek beste batzuekin alderatuta duen arrisku-mailari buruzko gida da. Produktuak, merkatuen eboluzioagatik edo ezin dizugulako ordaindu, dirua galtzeko dituen posibilitateak erakusten ditu.
- Produktu honi 2 arrisku-maila eman diogu 7ko eskalan. 2 horrek arrisku txikia esan nahi du.
- Ebaluazio horrek txikia gisa jo du etorkizuneko errentagarritasunetan galerak izateko posibilitatea eta oso inprobablea gisa merkatuaren kointuntura txar batek Kutxabank Vida y Pensionesek zuri ordaintzeko ahalmenean eragiteko probabilitatea.
- Produktu honek ez du babesik merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren aurka eta, horregatik, zure inbertsioaren zati bat edo inbertsio osoa gal zenezake.
- Zor zaizuna ezin badizugu ordaindu, inbertsio guztia gal zenezake (ikus atal hau: Zer gertatzen da Kutxabank Vida y Pensionesek ezin badu ordaindu?).

Errentagarritasun-egoerak

Inbertsioa 10.000 EUR		1 urte	11 urte	Biziar-tekoa (gomendatutako mantentze-aldia)
Biziraupen-egoerak	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	7.402,63 EUR	7.505,07 EUR	10.372,66 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-26,00%	-2,61%	0,18%
Tentsio-egoera	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	8.590,92 EUR	10.149,46 EUR	10.372,91 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-14,11%	0,14%	0,18%
Egoera txarra	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	9.305,51 EUR	10.149,46 EUR	10.372,91 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-6,95%	0,14%	0,18%
Egoera moderatua	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	9.881,15 EUR	10.149,46 EUR	10.372,91 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-1,19%	0,14%	0,18%
Egoera ona	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	21,84 EUR	240,24 EUR	458,64 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua			
Prestazioen egoerak – Kontingentzia aseguratutak				
Biziar-teko Errentak	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	10.000,00 EUR	10.000,00 EUR	10.000,00 EUR
Heriotza-kapitala	Kostuak kenduta zure Onuradunek jaso dezaketena			

Taula honek erakusten du aseguru-kontratuak irauten duen bitartean jaso zenezakeen dirua, bizi-itxaropenaren arabera eta egoera desberdinen arabera kalkulatuta, 10.000 € inbertitzen dituzula kontuan hartuta

Aurkeztutako egoerek zure inbertsioak izan lezakeen errentagarritasuna adierazten dute. Beste produktu batzuen egoerekin aldera ditzakezu. Biziraupen-egoeretan honela kalkulatu da biziar-teko errentaren errentagarritasuna: (i) eurotan (bezeroak jaso dezakeena), kontuan hartutako aldiaren amaiera arte ordaindutako errentei gastuak kendutako erreskate-balioaren kalkulaturako zenbatekoa, kontuan hartutako iraupen bakoitzari legokiokeena; (ii) ehunekotan (urte bakoitzeko batez besteko errendimendua), kontuan hartutako aldiaren amaiera arteko errenten zenbatekoa, eta kontuan hartutako aldi bakoitzari legokiokeen gastuak kendutako erreskate-balioaren zenbatekoa kontuan hartuta.

Aurkeztutako egoerak inbertsio honen aldakuntzari buruzko iraganeko datuetan oinarritutako etorkizuneko errentagarritasunaren estimazioa dira eta ez dira adierazle zehatza. Jasoko duena merkatuaren eboluzioaren eta inbertsioa edo produktua mantentzen duen denboraren arabera aldatuko da.

Tentsio-egoerak merkatuen muturreko baldintzetan jaso zenezakeena erakusten du, eta ez du kontuan hartzen guk ordaindu ezingo genizukeen egoera bat.

Aurkeztutako zenbatekoek bame hartzen dituzte produktu beraren kostu guztiak. Zenbatekoek ez dute kontuan hartzen zure egoera fiskala, jasotzen duzun zenbatekoan eragina izan badezake ere.

Zer gertatzen da Kutxabank Vida y Pensionesek ezin badu ordaindu?

Txikizkako inbertitzaileak finantza-galerak izan ditzake Kutxabank Vida y Pensionesek ez ordaintzeagatik eta ez dago kasu horretan txikizkako inbertitzailea babesten duen konpentsazio- edo berme-erregimenik. Aurrekoa alde batera utzita, Kutxabank Vida y Pensionesek araudi zorrotza bete behar du ikuskapen- eta kaudimen-arloan, aseguru-entitateek ez ordaintzeko probabilitatea oso txikia izatea helburutzat duena. Kutxabank Vida y Pensionesek araudi horretan ezarritako kaudimen-eskakizunak betetzen ditu. Halaber, Espainiako beste entitate publiko batek, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa izenekoak, aseguru-kontratuaren hartzekodunak babesteko funtzioa du hura likidatzen bada edo hartzekodunen konkurtsoan sartzen bada. Horri buruzko informazio gehiago lor dezakezu www.consorseguos.es helbidean.

Zein dira kostuak?

Errendimenduaren murrizketak (RIY - Reduction In Yield) ordaintzen dituzun kostu osoek inbertsioarekin lor dezakezun errendimenduan izango duten inpaktua erakusten du. Kostu osoek kontuan hartzen dituzte kostu bakarrak, kostu korronteak eta kostu osagarriak.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze-aldi desberdini dagozkien produktu beraren kostu metagarriak dira. Barne hartzen dituzte irteera aurreratuaren ondorioz egon daitezkeen zehapenak. Kopuruak onartuta dute 10.000 € inbertituko dituzula. Kopuruak estimazioak direnez, etorkizunean aldatu egin daitezke.

Kostuak denboran zehar.

Produktu hau saltzen dizun edo produktuari buruzko aholkuak ematen dizkizun pertsonak beste kostu batzuk sar ditzake. Kasu horretan, pertsona horrek kostu horiei buruzko informazioa emango dizu eta kostu osoek zure inbertsioan denboran zehar izango dituzten ondorioak azalduko dizkizu.

Inbertsioa 10.000 EUR	Irteera urtebete igaro ondoren	Irteera 11 urte igaro ondoren	Irteera gomendatutako mantentze-aldiaren amaieran (Biziartekoa)
Egoerak			
Kostu osoak	200,00 EUR	200,00 EUR	200,00 EUR
Urteko errendimenduan duen inpaktua (RIY)	1,45%	0,16%	0,10%

Kostuen osaera

Ondorengo taulak honako hauek adierazten ditu:

- Kostu-mota desberdinek gomendatutako mantentze-aldiaren amaieran inbertsioaren errendimenduan izan dezaketen inpaktua, urte bakoitzari dagokiona.
- Kostu-kategoria desberdinen esanahia.

Taula honek urteko errendimenduaren gaineko inpaktua erakusten du

Kostu	Sarrerako kostuak	0,10%	Inbertsioa egitean ordaintzen dituzun kostuen inpaktua.
Kostu bakarrak	Irteerako kostuak	Ez da aplikagarria	Zure inbertsioaren irteerako kostuek muga-egunean duten inpaktua.
Kostu korronteak	Zorroaren eragiketa-kostuak	Ez da aplikagarria	Produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak gureztat izango dituzten kostuen inpaktua.
	Beste kostu korronte batzuk	Ez da aplikagarria	Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuen eta gainerako kostu errepikari aplikagarrien inpaktua.
Kostu osagarriak	Errendimendu-komisioak	Ez da aplikagarria	Errendimendu-komisioaren inpaktua. Komisio horiek zure inbertsiotik kentzen ditugu produktuak zure erreferentzia-indizea baino errentagarritasun handiagoa lortzen badu.
	Kontuko partaidetzak	Ez da aplikagarria	Kontuko partaidetzen inpaktua.

Zenbat denboran mantendu behar dut inbertsioa eta atera al dezaket dirua aurrerapenez?

Gomendatutako mantentze-aldia: Aseguratua hil arte.

Errenta-produktu honen ezaugarriak kontuan hartuta, aseguruia bizitza guztirako mantentzea gomendatzen da, Aseguratua hil arte. Hala ere, Aseguratuak produktuaren bizitzako edozein unetan erabili ahal izango du erreskate osorako eskubidea, Zer da produktu hau? atalean xehatu den bezala.

Nola egin dezaket erreklamazioa?

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren harremanetarako datuak:

- Kutxabank Segurosos Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, helbidea Euskadi plaza, 5 - 28. solairua - 48009 Bilbo, Bizkaia.
- E-posta: atencion.asegurado@kutxabankseguros.es.

Beste datu interesgarri batzuk

Kontratazioaren aurretik, dokumentu honetaz gain, produktuaren alde aurretiko informazio-orria emango zaizu.

Errentagarritasun- eta kostu-egoeren tauletan aurkeztutako zenbatekoak 70 urteko Aseguratu batentzat kalkulatu dira, eta dokumentu honen eguneratze-datari dagozkien merkatuko datuekin. Kontratazioa egiteko unean, benetako baldintzak dokumentu hau egiteko erabili direnen desberdinak izan daitezke.